



Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

ELKARTUTA

Alde batetik, Iñaki Agirre Jauregi jauna, Legorretako alkate udalburua

Bestetik, **KARMELE GAZTAÑAGA URKOLA** andrea, 15889918T NAN zenbakiduna, **EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEA**ren izenean eta ordezkaritzan, IFZ: G75213835 zenbakiduna, Korta eta Zapas enparantza 4 zenbakian (20250 Legorreta) helbideratua; jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen abisua jasotzeko posta elektronikoa: karmelegaz52@gmail.com.

Parte-hartzaileek agiri hau sinatzeko behar den lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hala, hau

ADIERAZTEN DUTE:

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.26 artikuluan xedatutakoaren arabera, udal-eskumen propioa da euskararen erabilera sustatzeko udal-planak onartu eta kudeatzea; lege horren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera *«izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak»*.

10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, euskararen normalizazioa arautzen du, hau da, euskara gizarte-funtzio guzti-guztiak betetzeko gauza izan dadin beharrezko prozesua arautzen du.

179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, bi eskumen bereizten ditu: barne-funtzionamendua eta udal-zerbitzuak normalizatzeko *ad intra* ondorioak dituen eskumena, eta udal-eremuan euskararen erabilera soziala normalizatzeko *ad extra* ondorioak dituen eskumena.

Euskararen alde egiteak herritarren arteko benetako berdintasuna sustatzea du helburu, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7.2 paragrafoan jasotako zentzuan.

Arauak jasotzen dituen printzipioen artean honako hauek daude: euskararen erabilera normala eta orokorra, hizkuntza-eskubideen bermea, tokiko hizkuntza-autonomia, auto antolaketaren



Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, ekintza positiboaren printzipioa eta norberaren hizkuntzaren alde ebatzitako ekintzaren printzipioa, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioa, proportzionaltasunaren printzipioa eta plangintzaren printzipioa. Printzipio horiek tokiko hizkuntza-autonomia garatzeko esparrua osatzen dute.

Euskararen ezagutzak gora egin du, baina erabilera ez da neurri berean hazi; lehentasuna da, beraz, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea. Zuzeneko dirulaguntza honen helburua da prentsa idatzian euskararen presentzia sustatzea, garatzea, indartzea eta normalizatzea.

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEA da Legorreta udalerrian euskararen erabilera sustatzen duen elkarte bakarra. Haren xede nagusiak honako hauek dira:

- Euskal kultura lantzea.
- Euskararen erabilera sustatzea.
- Euskal kultura herritarren egunerokoan txertatzea.
- Euskal kultura eta ohiturak lantzean genero-ikuspuntua bermatzea.

Legorretako alkate udalburuak, 2023ko otsailaren 14ko 43/2023 Dekretu bidez, ebatzi zuen Legorretako Udaleko 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzan Plan estrategikoa, eta orain, 2025eko martxoaren 12ko 87/2025 Dekretu bidez, Legorretako Udaleko 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025eko aurrekontura egokitzapena ebatzi du. Plan honetako Euskararen arloan aurreikusita dago, besteak beste, euskara erabiltzeko ohitura mantendu dadin sustatzea eta euskararen normalizazioa udalerrian bultzatzea.

Legorretako Udalak sustapen zuzena egin nahi du euskararen erabilera eta normalizazioa udalerrian bultzatzeko.

Hori dela eta, bi aldeek ituntzen dute:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Helburua.

Hitzarmen honen bitartez arautzen da zein baldintzatan emango dion dirulaguntza Legorretako Udalak EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEAri, xede hauetarako:

1. Euskarazko hizkuntza-adierazpena eta erabilera-ohitura mantendu eta sustatzea
2. Euskararekin lotura duten udalak antolatutako ekintzetan lankidetzan ematea, batez ere Euskararen Egunean, Euskaraldian, Korrikan, eta hainbat jardueratan eta ekitalditan.
3. Jarduera eta ekintzen informazioa zabaltzea interesa duten kolektiboetara: gurasoak, eskolak, udala...
4. Udalari aholkularitza ematea euskararen sustapenarekin lotutako planak eta ekitaldiak garatzeko.
5. Jardunaldiak, ekitaldiak, tailerrak antolatzea.
6. Azterketak eta ikerketak egitea.

Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

7. Urte osoko jardunean genero ikuspegia txertatzea.

Bigarrena. -Finantzaketa.

Horretarako, Legorretako Udalak EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEAri **BI MILA EURO (2.000)** ordainduko dizkio, 1.000.481.05.335.00 aurrekontu izendapenaren kontura.

Ordaintzeko data: Hitzarmena sinatu eta 30 eguneko epean: 2.000

(Hitzarmena egun horretan sinatuta egongo ez balitz, diru-kopurua ordainduko da hitzarmena formalizatu eta hurrengo egunean)

Ordaintzeko tokia: KUTXABANK entitateko K/K: IBAN ES14 2095 5051 709118729884

Dirulaguntza bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, laguntza, sarrera edo baliabiderekin. Dirulaguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaindituko, ez banaka ez beste subentzio laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

Hirugarrena. Oinarrizko baldintzak.

Hitzarmena sinatzeko unean eta ekitaldi bakoitzeko ordainketa jaso aurretik, EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEA egiaztatuko du egunean dituela zerga eta Gizarte Segurantzarako betebeharrak, eta betetzen dituela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak.

Legorretako Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du Euskadiko Administrazioen Elkarrengarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) bidez egiaztatzeko:

AGE- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - Nortasun-datuen kontsulta-Egiaztapena

NISAE: EAEko, Nafarroako edo AEAT Foru Ogasunak -Zerga betebeharren ordainketa egunean egotearen kontsulta

AGE: GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotearen kontsulta zerbitzua

AGE: Justizia Ministerioa: Sexu-delituengatiko aurrekari penalik eta aurrekaririk ez dagoen kontsulta-zerbitzua (soilik, adingabeekin lan egiten duten elkarrearen ordezkarien datuak egiaztatzeko)

Datu horiek ez direla kontsultatu edo bildu behar iritziz gero, eskatzaileak arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela (EBko Erregelamenduaren 21. artikulua). 2016/679 Datuak Babesteari buruzkoa), hori egiaztatzen duen dokumentua aurkezteaz gain.

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEA:

☒ Ez dago aurka

☐ Bai, aurka dago eta aurkeztuko du dokumentazioa



Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

Laugarrena. Onuradunaren betebeharrak.

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEAk ondoko betebeharrak izango ditu:

-Dirulaguntzaren xede izan zen jarduera gauzatzea, hitzarmenaren eta, bere kasuan, proiektuaren baldintzetara egokituta.

-Jarduera egitea, hala badagokio, jarduera garatzeko behar diren giza baliabideekin, Legorretako Udalarekin inolako lan- edo administrazio-harremanik izan gabe.

-Zergaren eta kontabilitatearen arloko xedapenek eskatzen duten zerga- eta kontabilitate-dokumentazioa egunean eta modu egokian edukitzea.

-Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, gutxienez bost urtez gordetzea.

-Hitzarmenaren xede den jardueraren erantzukizun zibileko aseguru bat sinatzea edo horren estaldura egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, jardueraren funtzionamendu normalak eta anormalak eragindako kalte eta galerei aurre egiteko.

-Hitzarmenaren xede diren jarduera guztietan emakume eta gizonek proiektu horretan murgiltzeko aukera berdinak izateko eta parte hartze aktiboa izateko, genero ikuspegia aintzat hartuta, neurriak hartuko dira.

-Legorretako Udalak deitzen dituen bileretan parte hartzea; horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin, beharrezko bide eta bitartekoak ezarriko dira.

- Egindako jardueren eta ekitaldien kontrol eta jarraipen lanak erraztea Kultur arloko udal teknikariari.

- Egindako jardueren eta ekitaldien kontrol eta jarraipen lanak erraztea Berdintasun arloko udal teknikariari.

-Legorretako Udalaren lankidetza agertzea diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa ematean, publizitatea egitean edo propaganda guztietan, bere irudi arauak zainduz betiere.

- Euskarrietan –publizitatekoa edo informaziozkoa– ezin izango da hizkuntza edo irudi sexistarik erabili. Zuzenean sortzen dituzten dokumentuetan ere hizkuntza ez sexista erabiliko da.

-Hitzarmenaren xede diren jarduera guztietan irudi nahiz ikus-entzunezkoetan hizkera eta irudi ez sexistaren erabilera bermatuko da.



Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

Bosgarrena. Dirulaguntzaren kontrola

Onuradunak:

- Egiaztapen-jarduerei men egingo die, eta eskatzen zaizkion datu eta dokumentu guztiak emango dizkio udalari.

- Jarduera egitean sor daitezkeen aldaketen berri emango du, ezagutu bezain laster, eta behar bezala justifikatuko du, horretarako baimena eskatuz.

Beste administrazio edo erakunde publiko batzuek helburu bererako emandako beste edozein Dirulaguntza edo laguntzaren berri emango dio Legorretako Udalari.

- Indarrean dagoen araudi fiskalak ezarritako betebeharrak guztiak beteko ditu

Seigarrena. Zuritzeko kontua.

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA ELKARTEAK 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen Dirulaguntza justifikatzeko kontua aurkeztu beharko du eredu normalizatuan (1. eranskina), eta honako hauek aurkeztu beharko ditu :

- Laguntza emateko baldintzak bete direla azaltzen duen jarduera memoria: zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren zehaztuta.
- -Jardueren memorian gauzatzen diren jarduera guztietan genero ikuspegia txertatzeko hartutako neurriak zehaztuko ditu.
- -Jardueren memorian jarduera bakoitzeko parte hartze kopurua zehaztuko da generoaren arabera banatuta, eta jarduera berdinean eginkizun ezberdinak egotekotan bakoitzean izan den parte hartzearen arabera zehaztu beharko da.
- Egingako jardueren kostua zuritzeko memoria ekonomikoa, honako hauek bilduko dituenak:
 - a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.
 - b) Fakturak edo trafiko juridiko merkantilean pareko froga-balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentua.
 - c) Diruz lagundutako jarduketako finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua: zenbatekoa eta jatorria adierazita.



Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

Dirulaguntza zuritzeko xedatutako epean ez bada aipatutako eredua eta dokumentazioa aurkezten, 10 eguneko epean aurkez dezan eskatuko zaio elkarte onuradunari. Epe berriaren barruan egiaztapenak ez aurkezteak, zazpigarren klausulan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

Onuradunak lau urteko epean gorde behar ditu diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Erakunde onuradunak egiaztagiriak aurkezteko duen epea amaitzen denean hasiko da lau urteko beste epe hori.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten denean, organo emaileak dagozkion egiaztapenak egingo ditu. Ondorioztatzen bada diruz lagundutako kostua onartutako dirulaguntza baino txikiagoa dela, edo Dirulaguntza zuritzeko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla dirulaguntzaren helburuak bete, onuradun erakundeari gorabehera horren berri emango zaio egindako egiaztapenaren emaitzekin batera eta zazpigarren klausulan aurreikutsita dagoen bezala jokatu da.

Zazpigarrena.- Hitzarmena ez betetzearen ondorioak.

Onuradunak ez badu betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, legozkioken berandutza interesekin batera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 40. artikulua xedatutakoari jarraituz, eta erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako 38/2003 Legeak xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorritik.

Lanaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, dirulaguntza bukatutzat eman eta eten daiteke.

Zortzigarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik hasi eta 2025eko abenduaren 31ra arte izango du eragina; eta edonola ere, hartutako konpromisoak erabat bete arte, hurrengo klausulan ezarritakoaren kalterik gabe.

Bederatzigarrena.- Gardentasuna

Emandako dirulaguntzari buruzko informazioa argitaratuko du onuradunak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6.1 eta 8.2 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta erakunde onuraduna lege horren 3. b) artikuluan araututako kasuan badago.

Hamargarrena.- Izaera.

Hitzarmen hau izaera administratibokoa da.

Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak erabakiko ditu.



**Legorretako
Udala**

Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena eta Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Adostasuna adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasota gera dadin, hitzarmen hau sinatzen dugu sinadura elektronikoak adierazten duen datan.

LEGORRETAKO ALKATE UDALBURUA

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ELEGUNEA
ELKARTEA

Iñaki Agirre Jauregi

Karmele Gaztañaga Urkola



Espediente kodea: 2025UDIR0006

Titularra: ELEGUNEA ELKARTEA

Espediente mota: Dirulaguntza nominatiboak hitzarmenaren bitartez: herriko kultur, kirol eta giza taldeei

Gaia: 2023-2025 PLAN ESTRATEGIKOA. 2025eko LAGUNTZA

AGIRIA sinatu aurretik, irakurri DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA		Antes de firmar el DOCUMENTO, debe leer la INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS	
Tratamenduaren xedea	Legorretako Udaleko dirulaguntzen eta finantza-kontrolaren arloko espedienteak izapidetzea. Estatistikak egitea.	Finalidad del tratamiento	Tramitación administrativa de expedientes de subvenciones y control financiero en el Ayuntamiento de Legorreta Realización de estadísticas.
Tratamenduaren legitimazioa zein lege-oinarria	Datuen tratamendurako legitimazioa honako honetan oinarritzen da: DBEOren 6.1 c) artikulua (azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.artikulua).	Legitimación o base jurídica del tratamiento	La legitimación para el tratamiento de los datos está basada en el cumplimiento de una obligación legal del art. 6.1 c) del RGPD (art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones)
Informazioa kontserbatzeko epea zein irizpideak	Langileria-espedienteen izapidetzan. Balioetsitako epea: 5 urte.	Plazo o criterios de conservación de la información	Durante las fases de tramitación de expedientes de personal. Plazo estimado: 5 años.
Profilak egiteko edo erabaki automatizatuak hartzeko asmoa	Ez.	Existencia de decisiones automatizadas o elaboración de perfiles	No.
Datuen lagapena	Eusko Jaurlaritz, Arartekoa, Herriaren Defentsarako epaitegiak, Kontuen Auzitegia, eta legez aurreikusitako beste edozein lagapen.	Cesión de datos	Gobierno Vasco, Ararteko, Defensor del Pueblo, Juzgados y Tribunales, Tribunal de Cuentas y otras cesiones que estén previstas legalmente.
Hirugarren herrialdeetara datu-transferentziak	Ez, legezko betebeharra izan ezik.	Transferencia de datos a terceros países	No, salvo obligación legal.
Eskubideak: (Mugatuta daude, ingurumeneko eta hirigintzako diziplinako prozedurak oztopa ditzaketen neurrian)	1. Datuetan sartzeko eskatzeko eskubidea. 2.*Datuk zuzentzeko, ezerezteko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubideak. 3.*Tratamendua murriztea eskatzeko eskubidea. 4. Datuak eramateko eskubidea. 5. Kontrol-agintarien aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea.	Derechos: (Están limitados en cuanto que son susceptibles de impedir el desarrollo de los procedimientos de control de disciplina medioambiental y urbanística)	1. Derecho a solicitar el acceso a los datos. 2.*Derecho a solicitar la rectificación, supresión o de oposición al tratamiento. 3.*Derecho a solicitar la limitación de su tratamiento. 4. Derecho a la portabilidad de los datos. 5.Derecho a presentar reclamación ante las autoridades de control.
Tratamenduaren arduraduna	Legorretako Udala Kale Nagusia 12, 20250 Legorreta udala@legorreta.eus 943-08 40 00	Responsable del tratamiento	Ayuntamiento de Legorreta Kale Nagusia 12, 20250 Legorreta udala@legorreta.eus 943-08 40 00
Datuak babesteko ordezkaria	P3RSEUS CIBERSEGURIDAD SL Harremanetarako datuak: udala@legorreta.eus	Delegado/a de protección de datos	P3RSEUS CIBERSEGURIDAD SL Datos de contacto: udala@legorreta.eus

Sinatzailea	Alkatea Iñaki Agirre Jauregi ERAKUNDEAREN ORDEZKARITZAN
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAA1X0JP.91zG